

LAN TA LAN

Ostegunero bezala, Altsasun, herriko egitasmoak eramaten dituzten arduradunak, haien segimendua egiteko, elkartzen dira. Helburua da, Altsasu herria eraberriturik izatea Sakana eraberrituan.

LOREAK, bere lagunekin, Haranean garraio azkar baten alde lan egiten du, eta haiekin, GORKAK, bere taldearekin ere, AHT ez ezartzeko borroka egiten.

ITSASO, ameslari baino errealista eta futurista aldi berean, Ibarreko mugimendua eta jendearen bizitzan, Alzania, Burunda eta Arakil ibaiek eragin gehiago eduki beharko luketela, uste du. Horretarako, bukatutako egitasmoaren arabera, ibaietan zehar ere, txalupa batzuekin, herritarrak, lanera, herrietara, eroatera,..... joan liteke, lasai eta atsegin handiz.

ENARAK, ametsetan, hegan egiten Ibarrean zehar, egun batean Altsasu eta Sakanako hizkuntza euskera izan dadila espero du eta horretarako atsedetik gabe lan egiten du.

Denbora asko daramate lanean, jendea, dendak, tailerrak, Mankomunitatea, Udalak, eta batez ere, Nafarroako Gobernuarekin hitz egiten. Herriak egitasmoak ezagutzen ditu eta gogoz itxoiten ari da etorkizunean errealitatea izan daitezela, Sakanako bizitza hobetzeko.

Baina, ostegun honetan, aurpegi ilunak daude bileran, Nafarroako Gobernutik itzalak baitatoz, ez dutelako aurrean gauza onik.

LOREA: Bilera bertan behera utzi eta itxoiteko esan didate.

Oraingo geltokiei dagokionez, arazoak daudela, -esaten dute- konbentzional trena berriak jasotzeko. Gure aurkeztutako planteamenduari buruz, trena eta La Burundesako zerbitzuak lotzeko, zalantzak dituela, - eransten dute - .
Ez dut ulertzen. Dena erreparasaturik eta ongi zegoen. Zerbait gertatzen ari da.

ITSASO: Ni ere kezkatuta nago. Urdalur, Urruntzuren eta Lezitzako ura ekarpenak, ibaiak erregulatzeko, ikasten ari direla -esan didate-. Aurkeztutako irtenbideak, uharka txikien arazoak gainditzeko, berrikusi behar direla. Altsasun aukeratu dugun tokia kaia kokatzeko, aztergai daukatela.... Zer pasatuko da ?

ENARA: Nire kasuan, bilera atzeratu didate hau esanez.... – ea jasotzen dituzun, uste zenituen baino arazo eta lan gehiago !.

GORKA: Nik AHTrekin ez ditut arazorik ari izaten. Egia da ordutegiak eta merkantziari buruz zerbait galdetu didatela, baina, AHTk merkantziarik ez duela eramango egiaztaturik eta AHT – ALVIAREN artean, adibidez, ordutegietan ez daudela alde handirik, dena konponduta geratu da.

Dena den, zuen kezkak erakusten dituzuenez, nirea azalduko dut ere bai

Nire lagunek, Altsasuko jendea orokorrean, egitasmoetan arreta galtzen ari dira. Beldur dira langabeziagatik; erregulazioak, Isphording, orain Gamesa,.....
Eta Ibarrean gauzak ez doaz hobe, Barrankesa, Laneko,.....
Jendea ikaraturik dago.

LOREA: Nik ere nabaritu dut.

ENARA: Baita nik ere.

ITSASO: Egia da. Zerbait egin beharko genuke.

GORKA: Gaur ez. Egun txarra dugu. Ea hurrengo bileran berri onak ditugun eta bitartean pentsa dezagun langabeziari nola aurre egin.

Hurrengo bileran, gauzak aldatu dira. Berri onak datoz eta aurpegiak alaiak daude.

ITSASO: Antza denez, Nafarroako Gobernuaren zalantzak, egitasmoak nola ahokatu eta finantziatu omen ziren, baina, badirudi dena konponduta dagoela.

Ze poza ! Ikusten ari naiz txalupan eta trenean bidaiatzen jendea nola elkar agurtzen duten. Jende guztia gure paisaia ederra ikusten.....

ENARA: Ni ere alai nago, baina, lan itzela izango dugu.

Nafarroako Gobernuak eskatu digu, elkarte bat sortzeko. Mankomunitateak, Udalek, gizarte eta kultur taldeek, parte hartu behar dute botere guztiekin, gure bizitza euskeraz finkatzeko. Hasteko, Mankomunitateak, Altsasuko Udalak, Bierrik, Kimak eta AEKk elkartuko dira eta egitasmoen arauak, agiriak, seinaleak, etab. etab., euskera izateaz arduratuko dira.

GORKA: Nire kasuan, Nafarroako Gobernuak hartu duen erabakia ongi iruditu zait.

AHTrentzat aurrekontuetan zegoen gastuko partidarekin, gure egitasmoak ordainduko ditu.

LOREA: Beno, badirudi, dena ongi doala.

Faltatzen zaiguna da langabeziari buruz hitz egitea. Gogoratzen zarete ?

ENARA: Ba, niri, ametsetan, ametsetan, hegan egiten,..... gauza bat bururatu zait langileei laguntzeko.

GORKA: Nola ba ?

ENARA: Azalduko dizuet, baina, bada ez bada, atea itxiko dut.

Nafarroako Gobernuko arduradun batek, bere bulegoan,, lan egiten duen bitartean, ordenantza ikaraturik sartu eta Altsasun zerbait gertatzen ari zela dio.

ARDURADUNA: Haserre, Eta orain zer ? Aurkeztutako egitasmo guztiak onartu ditugu. Zertan ari gara ?

ORDENANTZA: Altsasura joan beharko genuke. Ba..... kamioiak eta autoak, herria, zerutik hegan egiten, pasatzen ari omen dira.

ARDURADUNA: Zeeeeeeeeeeeer ? Ezinezkoa da ! Erotuta zaude ! Hau txoriburukeria !.

ORDENANTZA: Jakin badakizu Gamesa larrialdietan dagoela eta langileek arreta deitu nahian, errotak erabiltzen ari dira. Lantegiko motorrak eta hegoak lotu dituzte eta Altsasuko lantegiko garabi handien laguntzaz, kamioiak eta autoak Altsasura eta Etxegarateraino iristen direnei , hartzen dituzte eta zerutik Altsasu – Etxegarate pasatu ondoren, berriro errepidean uzten dituzte.

ARDURADUNA: Goazen Altsasura ! Deitu Foralei !

ORDENANTZA: Foralei ? Barkatu, baina, autoak zerutik pasatzen ari dira, beraz, isunak ipintzeko..... gaizki. Gipuzkoako agintariak han daude ere eta gainera kezkatuak. Pentsa ezazu, hemendik aurrera autoak hegan egiten pasatuz gero, Etxegaraten ez dute peaje kobratzerik izango.

*Altsasun, Arduraduna, mundu guztia bezala, liluraturik dago zeruari begira.
Sinestezina da ! Harrigarria !, -esaten du-. Zaratarik eta kutsadurarik gabe,
ibilgailuak hegan egiten doaz ! .
Ez daki zer egin. Zorabiatuta dago.
Azkenean, bere onera etortzen da.*

ARDURADUNA: Ez zait axola, Gipuzkoarrek peaje kobratzen badute ala ez, baina, ekintza honek horrela jarraituz gero, mundu guztiak jakingo du, Altsasun, Nafarroan, gatazka bat dagoela.

Irtenbide bat aurkitu behar dut. Madrilera noa. [^]